



Energia berriztagarriak

Ander Elortegi Garatea

Gizakiok naturako baliabideak neurriz gain hartzen baditugu, planetari ez diogu astirik ematen berriztatzeko, eta agortzen ari gara. Energia berriztagarriak izan daitezke orekarako bidea.

Doinua: Txoriak eta txoriburuak Zortziko handia

EGUZKI ENERGIA

- 1 Gizakiaren beharrianak dira **ikaragarriak** gu hornitzeko gure planetak ditu arazo **larriak**. Darabiltzagun energia asko ez dira **jasagarriak** inoiz agortzen ez diren hauek dira **berriztagarriak**:

- 3 Erradiazio izpiak datoz eguzkitik **planetara** eta zelula fotovoltaikoz osatutako **plakara**. Elektroi batzuk igorri eta argia xurgatzen **bada** energia hau eraldatuta **elektrizitatea da**.

ITSAS ENERGIA

- 5 Olatutzarren mugimendua ur masa eta **aparra** marea edo itsasaldien korrontearen **oldarra**. Lur planetaren zati handi hau dago ikertu **beharra** agortezina delako gure itsasoaren **indarra**.

ENERGIA EOLIKOA

- 2 Mendian zehar jarrita haize sorgailu dorre **luzeak** beharrezkoak dira ardatza eta goiko **helizeak** biraka hasten dira ufaka bultzatuz gero **haizeak** ta energia sorrarazten du pala hauek **mugitzeak**.

ENERGIA HIDRAULIKOA

- 4 Ibaietako ura pilatuz betetzen da **urtegia** presa irekiz goitik behera erortzen da ur **geldia** urak indarrez jo eta gero azpiko **makineria** turbina batzuk biraka hasiz bihurtzen da **energia**.

- 6 Petrolio agortuko da, berdin ikatza zein **gasa** eta erregai nuklearrekin ere ezin gara **pasa**. Gure beharrak asetzea ez da sekula izan **erraza** guk hartu eta Lurrari eman diezaiozun **arnasa**.